

A120. BERDINTASUN AGENTEA

BIGARREN ARIKETA

Denbora, gehienez: 120 minutu.

Ez ireki galdera-orriak esan arte, eta irakur itzazu arretaz atariko orri honetan emandako jarraibideak.

JARRAIBIDE OROKORRAK:

- Mugikorrek itzalita eduki behar dira, eta mahaitik kanpo, baita erlojuak, jarduera-eskumuturrekoak eta antzekoak ere. Ur botilak, estutxeak eta antzekoak eskura eduki daitezke, baina ez mahaiaren gainean.
- Ahoz jakinaraziko da zenbat denbora falta den proba egiteko: 60-30-15-10-5 minutu geratzen direnean, eta azken minutuan.
- Mahaiaren gainean hauek besterik ezin izango dira eduki: galdera-orriak, identifikazio-orria, NANA eta boligrafoa (urdina edo beltza). Ezin da TIPEX® edo antzekorik erabili.
- Epaimahaiak irakurtzeko moduko idazkera erabili behar da ariketan.
- GAKOA duen identifikazio-orria eman badizute, jar itzazu datu hauek: NAN zenbakia, izena, abizenak eta probaren kodea/izena.
- Idatz ezazu GAKOA erabiltzen dituzun erantzun-orrietan. Kontrakoa adierazi ezean, EZ ezazu idatzi izenik edo NAN zenbakirik orrian, ezta sinatu ere, EZ ZUZENTZEKO arrazoia baita.
- Identifikazio-orria probaren lehen minutuak igaro ondoren jasoko da.
- Bertaratze-ziurtagiria nahi baduzu, eska ezazu presentzia kontrola egiten den unean.

BERARIAZKO JARRAIBIDEAK:

- Galdeketa-orrian planteatutako galderei erantzutean datza proba, horretarako zehaztutako espazioak baliatuz.
- Erantzun labur eta zehatzak eman beharko dira. Zuzentzeko irizpideak aldeztatik zehaztuko dira.
- Galdera bakoitzaren gehienezko puntuazioa enuntziatuan bertan adierazten da, baldin eta ezberdinak badira.
- Denbora agortu aurretik amaitzen baduzu, altxa eskua galdera-orriak edo erantzun-orriak har diezazkizuten.
- Ez da azterketarik jasoko, banaka, azken 3 minutuetan. Bukatu baduzu, geratu zure lekuan, isilik, denak batera bildu arte.

Eskerrik asko zure laguntzagatik

1 KASUA: 15 puntu.

Genero berdintasunerako politketan ahalegina egiten ari da jardunean ikuspegi interseksionala sartzeko, eta horrek diskriminazio anizkuneko egoeran dauden emakumeen errealitatearen ezagutza zorrotza eskatzen du. Hori dela eta, EAEko udal bateko Berdintasun agentea zaren aldetik, **EUOPAR BATASUNEKOAK EZ DIREN HERRIALDEETAKO EMAKUME ATZERRITARREN ERREALITATEAREN, BEHARREN ETA INTERESEN DIAGNOSTIKOA** egiteko agindua jaso duzu.

Biztanle-kopuru handiko udalerrria da. EBkoak ez diren herrialdeetako atzerritarren kopurua populazio osoaren % 8,5 da (emakumeen eta gizonen proportzioa antzekoa da). Udalerriko biztanleriaren eboluzioa goranzkoa da, batez ere atzerriko nazionalitatea duten biztanleen etorreragatik; horietako gehienak 16 eta 64 urte bitartekoak dira.

Hurrengo atalei erantzun behar diezu; luzera librea da. Ariketa ataletan banatuta ematen bada ere, denak sistema baten parte dira; horrek esan nahi du horien artean badela erlazio sistemikorik, baita koherentziarik ere.

ARIKETAN GARATU BEHARREKO ATALAK:

1.- Adieraz itzazu EBkoak ez diren herrialdeetako emakume atzerritarren errealitate, behar eta interesekin lotutako lehenetsuneko hiru alderdi edo eremu, zeinak diagnostikoan aztergai izango baitira. Oinarritu ezazu zure aukera, horretarako irizpideak adieraziz (ez da beharrezkoa datuak ematea). Puntuak, guztira: 4.

2.- Adieraz itzazu datuak eta informazioa jasotzeko kontuan hartuko dituzun informazio-iturriak (lehen mailako eta bigarren mailako iturriak) aztertu beharreko hiru alderdi edo eremuetako bakoitzeko. Puntuak, guztira: 4.

3.- Ezarri eta zehaztu lan-metodologia bat hiru alderdi horien diagnostikoa egiteko edo, beharrezkoa bada, aztertutako hiru eremuetako bakoitzerako metodologia. Puntuak, guztira: 7.

Gehienezko zabalera: 3 orri (zabalera handiagoa duten azterketek ez dira zuzenduko)

2. KASUA: 15 puntu.

EAEko udal bateko Berdintasun agentea zaren aldetik, zure udalerrian genero berdintasunerako plan bat sustatzen eta koordinatzen ari zara, zeinaren helburu orokorra baita genero berdintasunaren helburuan aurrera egiten laguntzea hainbat esku-hartze esparrutan. Plana lantzeko fasea 6 hilabetekoa izatea aurreikusi da; ezarpen eta jarraipen fasea, 3 urtekoa, eta ebaluazio fasea, 6 hilabetekoa.

Plana biztanle-kopuru handiko udalerriri baterako da: bertako udalak 3.000 langile inguru ditu, eta Plana garatzeko behar diren zerbitzu ezberdinak antolatzen dituen organigrama.

GENERO BERDINTASUNERAKO UDAL PLANAREN JARRAIPEN-SISTEMAREKIN lotutako atal hauei erantzun behar diezu ariketa honetan. Atalen luzera librea da. Ariketa ataletan banatuta ematen bada ere, denak sistema baten parte dira; horrek esan nahi du horien artean badela erlazio sistemikorik, baita koherentziarik ere.

ARIKETAN GARATU BEHARREKO ATALAK:

1.- Zehaztu itzazu genero berdintasunerako udal planaren jarraipen-sistemaren bidez lortu nahi dituzun helburuak. Puntuak, guztira: 4.

2.- Diseinatu ezazu genero berdintasunerako udal planaren jarraipen-sistema. Puntuak, guztira: 7.

3.- Adieraz ezazu zure ustez zein figura profesional eta/edo agente eta/edo lan-egitura leudekeen zuzenean lotuta planaren jarraipenarekin. Adieraz ezazu, eta oinarritu, zein beste figurak eta/edo agentek eta/edo lan-egiturak izan lezaketen zerikusia planarekin eta, beraz, horren jarraipenarekin. Puntuak, guztira: 4.

Gehienezko zabalera: 3 orri (zabalera handiagoa duten azterketek ez dira zuzenduko)